

GIDA SUMENDI BAT DAUKAT

AMORRUAREKIN

ZER EGIN DEZAKEGUN JAKITEKO IPUINA



Carambuco
ediciones

SUMENDI BAT DAUKAT, ipuina

Sumendi bat daukat Míriam Tirado idazle eta hazkuntza kontzienteko aholkulariak idatzitako eta Joan Turuk irudiztatutako ipuina da.



Egileei buruzko informazio gehiago nahi duzu?

Bi egileek hazkuntzari buruzko eta emozioak familian kudeatzeari buruzko ipuinen bilduma bat daukate.



Calita bilduma ezagutzen duzu? Bildumako izenbururik aipa zenezake?

Sumendi bat daukat ipuinak **amorruaren** emozioa arakatzen du eta protagonistak eta haren familiak **kasketak nola kudeatzen dituzten** aztertzen du.

Albak ez zekien, baina sumendi bat dauka bere baitan, gutxi gorabehera zilborraren eta saihetsen artean. Batzuetan, sumendia piztu eta lehertzen da. Orduan, suak dena erretzen du eta Alba aldi berean sufritu eta ikaratu egiten da. Baina, gau batean, maitagarritxo batek belarrira xuxurlatzen dio zer egin dezakeen hainbeste haserretzen denean, eta trikimailu horri esker ezusteko sentrazioak aurkituko ditu.

Sumendien maitagarria ezagutzen duzu?



Amorrua lantzeko jarraibide batzuk

Laguntzaileak izango bagara, garrantzitsua da ulertzea eta jakitun izatea **denok ez ditugula emozioak modu berean kudeatzen, sentitzen edo bizitzen**. Horrek esan nahi du haur batzuk oso ondo moldatuko direla baliabide honekin eta metafora honekin eta, beraz, oso tresna erabilgarria gertatuko zaiela, baina beste batzuei ez.

Tresna honekin moldatzen ez diren haurrak ez ditugu ez hertsatu ez obligatu behar. Izan gaitezen proaktiboak, eduki ditzagun ekimena eta irudimena eta bila ditzagun baretasunean eta erosotasunean oinarrituta lagundu diezaieketen beste baliabide batzuk. Pertsonak desberdinak izateak aberastasun kalkulaezina dakar; ez diezazkiegun hegoak ebaki.

Honako hauek ipuina lantzeko tresna pedagogiko moduan praktikan jar daitezkeen proposamen batzuk baino ez dira. Askatu irudimena eta ez izan beldurrik hain istorio politarekin lotutako bestelako jarduerak proposatzeko.

Izan zaitezte erreferentziarik onenak. Haurrei transmititzen diezuenazuek praktikatzen baduzue eta ideian sinesten baduzue, dena askoz ere modu magikoagoan eta bikainagoan irtengo da.

Ez dugu emoziorik baliogabetu behar, ezta inoiz emozio negatiboez hitz egin ere, baizik eta kasu honetan mina sortzen diguten eta besteei mina sor diezaieketen emozioez. Horregatik, emoziook **kudeatzeko eta ulertzeko tresnak eskaintzen ditugu**, baina baliodunak dira eta bizitzan zehar sentituz joango gara.



1. NON DAGO GURE SUMENDIA?

ADINA: 4 urtetik aurrera.


IRAUPENA: 20 minutu gutxi gorabehera.

MATERIALA: Sumendi bat daukat ipuina.

Sumendi bat gorputz barruan non eduki dezakegun identifikatu. Oso garrantzitsua da emozioak sentitzea, baita emozioetan arreta jartzen dugun bitartean iragaten uztea ere. Horregatik, komeni da ulertzea zer gorputz-ataletan jaio daitekeen sumendia.

Liburuaren lehen orrialdeetan ardaztuta, denok biribilean jarriko gara eta sumendia zer gorputz-ataletan senti dezakegun identifikatuko dugu, gutxi gorabehera zilborraren eta saihetsen artean, eta galdetuko diegu inoiz sentitu edo pentsatu duten gorputzeko gune horretan sumendiren bat edo bestelako elementuak egon daitezkeela.

Ez diegu informazio gehiagorik emango; **haien gogoetak entzutera** mugatuko gara, ipuinak jada laguntzen baitio jarduerari.



2. SUMENDIA PIZTEN DENEAN!

ADINA: 4 urtetik aurrera.

IRAUPENA: 30 minutu gutxi gorabehera.

MATERIALA: Sumendi bat daukat ipuina.

Zer gerta daiteke gure sumendiari sua badario?

Albaren sumendiari batzuetan sua dariola narratzen duen ipuinaren zatira heltzen garenean, sumendia pizten zaigunean modu fisikoan sentitu edo egin dezakegun guztia antzeztuko dugu.

Bikoteka, biribilean edo espazioan bananduta jarriko gara, taldearen arabera. Haur guztiek aldi berean, antzezpenaren bidez, gorputzaren baitan sua darion sumendi bat edukiz gero gerta dakigukeena egingo dute.

Batzuek oihukatu, beste batzuek saltatu edo korrika egingo dute, haserretuko dira...

Ez dugu sor daitekeen ekintzarik mugatu behar. Denak dira baliodunak, egiten dituen pertsonarentzat edo taldearentzat arriskutsuak izan ezean.

Amaitzean, **galdetuko diegu sumendia inoiz haiei ere pizten zaien eta arrazoiren batengatik haserretzen diren.** Hitz egiten utziko diegu eta iritzirik eman gabe entzungo ditugu.



3. SUMENDIAREN MAITAGARRIA

ADINA: 5 urtetik aurrera.

IRAUPENA: 60 minutu gutxi gorabehera. Bi saiotan zatitzea gomendatzen da.

MATERIALA: *Sumendi bat daukat* ipuina, maitagarriaren txantiloia, plastifikatzeko materiala eta margotzeko materiala.

Proposamen honetan **sumendiaren maitagarria aurkeztuko dugu**, ikasturte guztian gelan lagunduko diguna.

Jarduera modu askotan egin daiteke.

Haur bakoitzarentzako maitagarri bat egon daiteke, edo zenbait **maitagarri gela guztiarentzat**. Aukera eta beharrezko baliabideak badauzkazue, hobe da haur bakoitzak bere maitagarria edukitzea, horrela harekiko kidetasun- eta nortasun-sentimendua indartuko dugu eta.

Gidaren amaieran bakoitzak nahierara margotu eta dekoratu ahalko duen maitagarri bat aurkituko duzue. Plastifikatu eta makila batean itsats dezakezue, azkar honda ez dadin.

Aukera bat da **sumendi bat marraztea eta ikasgelako tokiren batean esekitzea** eta haurren maitagarri guztiak bertan sartzea, leku irisgarri batean, bakoitzak behar duenean hartu ahal izan dezan, edo maitagarri guztiak ontzi batean ipintzea, haurren izenak jarri ostean. Bestela, haur bakoitzak berea motxilan eraman dezake, ikaskuntza eta tresna familia-ingurunera eramateko.





Proposamenaren helburua da **haur batek bere sumendia lehertzeko zorian dagoela sentitzen duen bakoitzean bere maitagarria hartu eta arnastu ahal izatea**, maitagarriak ipuinean azaltzen duen bezala.

Horretarako, lehenengo eta behin elkarrekin praktikatu beharko dugu. Lehenik biribilean egingo dugu, eta gero bikoteka.

Lasai azalduko ditugu sumendia pitz dakigukeen zenbait egoera (haurrek berek azaldu ditzakete) eta maitagarriak amorrua arintzeko irakasten duen teknika praktikatuko dugu: arnasa sudurretik hartu, eta pixkanaka ahotik aterako dugu, behin eta berriro.

Biribilean egin ostean, bikoteka errepikatuko dugu, eskuak gelakidearen sabelean jarrita arnasten duen bakoitzean nola puzten den nabaritzeko.

Orain, nola funtzionatzen duen badakigunez, esango diegu **baimena daukatela sumendia pizten ari zaiela sentitzen dutenean maitagarriak hartzeko eta emozioa arintzearren lasai arnasteko**.



4. GURE SUMENDIAREN MURALA

ADINA: 5 urtetik aurrera.

IRAUPENA: 40 minutu gutxi gorabehera. Bi saio: dinamikaren prestaketa eta, gero, tarte bat sumendia pizten den egoera bat sortzen den bakoitzean.

MATERIALA: Sumendi bat daukat ipuina, biltzeko papera, folioak eta marrazteko eta margotzeko materiala.

Oraindik beharbada irakurmena eta idazmena berenganatu ez duten etapa batean egongo garenez, **ikasgelarako mural bat sortuko dugu, haurrek eskola-orduetan sumendia pizten zitzaiela sentitu duten uneetako** batzuk irudikatzen dituzten marrazki eta irudiekin.

Marrazki berri bat itsasten dugunean, egoera zein izan den kontatuko diegu eta **eztabaidatzeko gune** bat zabalduko dugu inoiz gauza bera gertatu zaien jakiteko.

Modu horretan, beti edukiko dute sumendia pizten zaiela modu naturalean islatzen duen gune bat eta, horrela, **gertatzen zaienarekin identifikatu eta egoera normalizatu ahalko dute.**



5. MAITAGARRIAK ETA SUMENDIAK

ADINA: 4 urtetik aurrera..

IRAUPENA: 20 minutu gutxi gorabehera.

MATERIALA: ez da materialik behar.

Taldea bi azpitaldetan banatuko dugu. Batekoak sumendiak izango dira eta bestean, maitagarriak.

Jolasa hastera doa! **Maitagarriek sumendiak harrapatu beharko dituzte.** Lortzen dutenean, **sumendiak maitagarri bihurtuko dira eta jolasten jarraituko dute, sumendiak harrapatzeko.**

Helburua da **taldeko sumendi guztiak maitagarri bihurtuta amaitzea.**

Haur guztiak maitagarriak direnean, lurrean eseriko gara, biribilean, jarrera eroso batean, eta astiro arnastuko dugu, arnasa sudurretik hartuz eta ahotik ateraz.





CARAMBUCO EDICIONES
SUMENDI BAT DAUKAT

Míriam Tirado eta Joan Turu

www.miriamtirado.com

Gida: Anna Mas

Itzulpena: Itziar Santín

www.carambucoediciones.com



@carambucoediciones

